

DEIALDIA

FUNTSATZEA

Bi faktoreri erantzuten dieten hainbat lankidetzaz ildo garatzen dihardute Gasteizko Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultateak.

Lehenik eta behin, agerikoa da helburu eta interes komunak dituztela bi erakundeek arte plastikoen sustapenari dagokionez, eta, hortaz, arte ederren sustapenari eta zabalkundeari dagokionez.

Bigarrenik, 2012an lankidetzaz-hitzarmena izenpetu zuten Arte Ederretako Fakultateak eta Gasteizko Udalak, arte ederretako ikasleen sortze lana zabaltzerako orduan lankidetzaz bultzatzeko asmoz, bai eta prestakuntza praktikoa hobetzeko zein, sorkuntza arloko azken joerak erakutsiz eta haiekin mintzatuz, kaleko gizartearen errealitatearekiko lotura zuzena ezartzeko asmoz ere; hitzarmena berritzen joan da gaur egun arte.

Erakunde bien arteko lankidetzak haien giza baliabideak zein materialak ahalik eta hoberen erabil daitezten sustatzea du xede, batera burutzen diren jardueren bidez, zeinen artean honakoa baitago.

OINARRIAK

1. Xedea

Sorkuntza artistikoko lau proiektu hautatzea da deialdi honen xedea, ekoizpen-fase aurreratuan daudenak, 2022-2023 aldian Montehermoso kulturuneko Jovellanos aretoan bakarkako erakusketetan aurkeztu ahal izateko.

2. Partaideak

Banaka nahiz taldeka aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak EHUko Arte Ederretako Fakultateko bigarren zikloan, graduondoko ikastaroetan edo doktoretza-ikastaroetan matrikulatutako ikasleek. Talde gisa aurkeztuz gero, ordezkari bat izendatu beharko da.

3. Proiektuak

Proiektu argitaragabea aurkeztu beharko da. Irizpide hauek artuko dira aintzat proiektuak hautatzeko orduan:

- a) Proiektuaren interesa eta kalitatea.
- b) Proiektuaren bideragarritasuna —aurkeztutako dosieraren eta dokumentazio osagarriaren arabera—

Bi ataletan emandako puntuak batu ondoren puntuazio-berdinketarik egokituz gero, Gasteizko udalerrian jaiotakoek edota bertan bizi direnek izango dute lehentasuna, edota Araban bizi direnek, hurrenkera horretan.

4. Baliabideak

Montehermoso kulturuneak 3.600 euroz hornituko du deialdia hautatzen diren proiektuen egileen artean banatzeko. Ordaintzen den zenbatekoak kontzeptu hauek barne hartuko ditu:

1. Obra ekoitzi eta garraiatzeak sortzen dituen gastuak.
2. Proiektuaren egilearen bidaia eta egonaldiak sortzen dituzten gastuak, behar izanez gero.
3. Obra ekoiztearen ondoriozko ordainsariak eta egile eskubideei dagozkienak.

Adierazitako diru-kopuruak barne hartuko ditu zergak, behar izanez gero egingo den PFEZren atxikipena gorabehera. Zenbateko hori Gasteizko Udalaren administrazio-prozedura baliatuz ordainduko dira diru-kopuru horiek.

Diru-hornidura horretaz gain, Montehermoso kulturuneak bertako azpiegitura, aholkularitza, baliabide teknikoak eta giza baliabideak jarriko ditu.

5. Proiektuak aurkeztu eta bidaltzeko epea

Parte hartu nahi dutenek euskarri digitalean bidali beharko dute eskatzen den dokumentazioa, 50 MBeko muga gainditu gabe, PDF dokumentu bakar batean. 2022ko ekainaren 10ean bukatuko da dokumentazioa aurkezteko epea.

Gasteizko Udalaren web-orrian agertzen den eredia baliatuz aurkeztuko da eskabidea:

6. Eskabideak aurkeztea:

- Aurrez aurre:
herritarrei laguntzeko bulegoetan.
- Online:
Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez.

Proiektuen hautaketa bukatu ondoren, eta itzultzeko eskatu ezean, aukeratu ez diren proiektuen dokumentazioa suntsitu egingo da. Hautatutako proiektuen txostenak eta dokumentazio osagarria Montehermoso kulturuneko Dokumentazio Zentroaren jabetzan geratuko dira.

7. Dokumentazioa

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea, behar bezala beteta.
- Proiektuaren egileen nortasun-agiriaren edo baliokidearen fotokopia.
- Arte Ederretako Fakultateko matrikula-egiaztagiria (2021-2022 ikasturtea).
- Curriculumuma.
- Aurreko lanen dossier laburra.

– Proiektuaren dosierra, hauek biltzen dituena:

- Proiektuaren izenburua eta garapena.
- Proiektuaren zirriborro eta irudiak, jpg formatuan (gutxienezko bereizmena: 72 ppp).
- Proiektuaren egungo egoera.

Atzera botako dira atal honetan zehaztutako dokumentazio guztia ez dakarten eskabideak.

8. Hautaketa-batzordea

Hauek osatuko dute hautaketa-batzordea:

- Proiektuen komisarioa.
- EHUko Arte Ederretako Fakultatearen ordezkari bat, gutxienez.
- Montehermoso kulturuneko burua.

Ezingo da batzorde horrek hartutako erabakiaren kontra jo.

9. Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan hautatutako pertsona edo taldeek konpromiso hauek hartuko dituzte:

- a) Laguntza onartzen dela idatziz berrestea.
- b) Hautaketa-batzordeak proiektua garatzeko ematen dituen arauak betetzea.
- c) 2022-2023 aldian Montehermoso kulturuneko Jovellanos aretoan proiektua aurkeztea.
- d) Aurkeztutako proiektuan aldaketarik bada, horren berri idatziz ematea.
- e) Jabetza intelektualaren eskubideen titularra izatea eta lana aurretik inoiz erakutsi gabea eta originala dela bermatzea.

10. Proiektuen garapena eta aurkezpena

Montehermoso kulturuneak eta EHUko Arte Ederretako Fakultateak izendatzen duten pertsonak koordinatuko du hautatutako proiektuen garapena eta jendaurreko aurkezpena, eta Montehermoso kulturuneko ekipo teknikoek laguntza izango du, baita hari atxikitako baliabide eta azpiegitura teknikoak ere.

Baldin eta uste bada lana ez dela deialdian aurreikusitako moduan eta epeetan gauzatzen ari, besterik gabe, laguntza kendu ahal izango da.

11. Proiektuen zabalkundea

Proiektuen komunikazio egokirako beharrezko den informazioa eta dokumentazioa emateko konpromisoa hartu beharko dute beren gain artistek. Gainera, hautatuak gertatuz gero, proiektuek sortutako materiala erreproduzitu eta banatzeko baimena emateko konpromisoa hartzen dute —proposamenari zabalkundea emateko jarduera guztietan—. Hautatzen diren

proiektu eta obrak egileen jabetzakoak izango dira, eta eskubideak lagatzeak ez du berekin ekarriko inongo bateraezintasunik, egileek, proiektua gauzatzeaz batera, horiek erabiltzerik izan dezaten.

12. Oinarriak interpretatu eta onartzea

Oinarri hauek interpretatzean sortzen diren zalantzak deialdirako osatu den hautaketa-batzordeko kideek ebatziko dituzte.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du. Oinarri hauetakoren bat edo laguntzak emateko baldintzetakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da horiek bertan behera geratzeko, galda litezkeen bestelako erantzukizunak gorabehera.

Argibide gehiago:

Montehermoso kulturunea.

Frai Zacarias Martinez kalea, 2

01001 Vitoria-Gasteiz

+34 945 161 830

administracion@montehermoso.net

www.montehermoso.net

CONVOCATORIA

FUNDAMENTACIÓN

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y la Facultad de Bellas Artes de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea vienen desarrollando diferentes líneas de colaboración que responden a dos factores:

En primer lugar, se constata que ambas instituciones tienen objetivos comunes e intereses en la promoción de las artes plásticas, y por consiguiente en el fomento y divulgación de las Bellas Artes.

En segundo lugar, en 2012 se firmó un convenio de colaboración que se ha ido renovando hasta hoy, con el objeto de favorecer la máxima cooperación entre la Facultad de BBAA y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz en la difusión de la creación de los y las estudiantes de Bellas Artes, en mejorar la formación práctica y establecer un vínculo directo con la realidad social de la calle, mostrando y dialogando con las últimas tendencias en materia de creación.

Con dicha colaboración se pretende la cooperación entre ambas instituciones promoviendo el óptimo uso de los recursos, tanto humanos como materiales, de ambas instituciones a través de la realización de actividades conjuntas, como la presente convocatoria.

BASES

1. Objeto

El objeto de esta convocatoria es la selección cuatro proyectos de creación artística, que estén en una fase avanzada de la producción para su presentación de forma individual durante un mes en la sala Jovellanos del Centro Cultural Montehermoso Kulturunea, a lo largo del período 2022-2023.

2. Participantes

Podrán presentar proyectos, de forma individual o colectiva, estudiantes de la facultad de Bellas Artes matriculados/as en el segundo ciclo, cursos de postgrados y doctorado de la misma durante el presente curso académico. En caso de presentarse como colectivo deberán designar a un/a representante del mismo.

3. Proyectos

Se deberá presentar un proyecto inédito. La selección de los proyectos se realizará conforme a los siguientes criterios:

- a) El interés y calidad del proyecto.
- b) La viabilidad del proyecto según el dossier y la documentación complementaria presentada.

Ante igualdad de puntuación en los dos apartados anteriores se dará prioridad en la concesión a las personas nacidas y/o residentes en el término municipal de Vitoria-Gasteiz y/o residentes en la provincia de Álava por este orden.

4. Recursos

El Centro Cultural Montehermoso destina un total de 3.600 euros que se distribuirá entre los/as artistas cuyo proyecto sea seleccionado. La cuantía abonada incluirá los conceptos de:

1. Gastos derivados de la producción y el transporte de la obra.
2. Gastos de viajes y estancias del autor/a del proyecto si se requiriese.
3. Honorarios de producción de obra y derechos de autor/a.

Las cantidades mencionadas se consideran con impuestos incluidos, y todo ello sin perjuicio de la retención de IRPF que se efectuará si procede. El ingreso de estas cantidades se realizará conforme al procedimiento administrativo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

Además de esta dotación económica el Centro Cultural Montehermoso aportará su infraestructura, asesoramiento y recursos técnicos y humanos disponibles.

5. Plazo de presentación y envío de proyectos

Los interesados en participar en esta convocatoria deberán enviar la documentación requerida y su solicitud en formato digital sin superar los 50MB, quedando todo recogido en un solo documento de PDF. El plazo para la presentación de la documentación finaliza el 10 de junio de 2022.

La solicitud deberá presentarse según el modelo disponible en la página web del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

6. Presentación de solicitudes:

- Presencial:
En las Oficinas de Atención Ciudadana.
- Online:
A través de la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Finalizada la selección, la documentación presentada de los trabajos no seleccionados será destruida si no se reclama su devolución. Los dosieres y documentación complementaria de los proyectos seleccionados pasarán a formar parte del Centro de Documentación del Centro Cultural Montehermoso Kulturunea.

7. Documentación

Se deberá presentar la siguiente documentación:

- Impreso de solicitud cumplimentado.

- Fotocopia del DNI (o documento equivalente) del autor, la autora o autores y/o autoras del proyecto.
- Justificante de matrícula en la Facultad de Bellas Artes del curso 2021-2022.
- Currículum.
- Breve dossier con trabajos anteriores.
- Dossier del proyecto propuesto que incluya:
 - Título y desarrollo del proyecto.
 - Bocetos e imágenes del proyecto en formato .jpg con una resolución mínima de 72 ppp.
 - Estado actual del proyecto.

Las solicitudes que no incluyan la documentación detallada en este apartado serán desestimadas.

8. Comité de selección

El Comité de Selección estará compuesto por:

- Comisaria/Comisario de los proyectos.
- Al menos una/un representante de la Facultad de Bellas Artes de UPV/EHU.
- Jefatura del Centro Cultural Montehermoso.

La decisión de dicho comité será inapelable.

9. Obligaciones de las personas beneficiarias

Las personas o colectivos seleccionados en esta convocatoria se comprometen a:

- a) Ratificar por escrito su aceptación de la ayuda.
- b) Cumplir las normas que desde la Comisión de Selección se les traslade para el desarrollo del proyecto.
- c) Presentar el proyecto en el Centro Cultural Montehermoso a lo largo período 2022-2023 en la Sala Jovellanos.
- d) Notificar por escrito cualquier modificación en el proyecto presentado.
- e) Ostentar los derechos de propiedad intelectual y garantizar que la obra sea inédita y original.

10. Desarrollo y presentación de los proyectos

El desarrollo y presentación pública de los proyectos seleccionados será comisariado por la persona designada por el Centro Cultural Montehermoso y la Facultad de Bellas Artes de la

UPV y contarán con el apoyo del equipo técnico del Centro Cultural Montehermoso Kulturunea y los recursos e infraestructuras técnicas adscritas al mismo.

Si se estimase que el trabajo no se lleva a cabo en los términos y plazos previstos en la convocatoria, la ayuda podría ser retirada automáticamente.

11. Difusión de los proyectos

Los y las artistas se comprometerán a facilitar toda la información y documentación necesaria para la correcta comunicación de los proyectos. Además, si estos son seleccionados, se comprometen a autorizar la reproducción y distribución del material generado por los mismos en todas las actividades que se creen para la divulgación de la propuesta. Los proyectos y las obras seleccionadas serán propiedad de los y las autoras y la cesión de estos derechos no implicará en ningún momento la incompatibilidad para que los y las autoras los utilicen simultáneamente a la ejecución del proyecto.

12. Interpretación y aceptación de las bases

Cualquier duda que pueda surgir en relación a la interpretación de estas bases será resuelta por el Comité de Selección designado para la convocatoria.

La participación en la presente convocatoria supone la aceptación plena de las normas que la regulan. El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en las presentes bases o en la concesión de ayudas supone la suspensión inmediata de la misma, con independencia de la responsabilidad a que pudiera dar lugar.

Más Información:

Centro Cultural Montehermoso
Fray Zacarias Martinez, 2
01001 Vitoria-Gasteiz
+34 945 161 830
administracion@montehermoso.net
www.montehermoso.net